

t tipi t tapa

330

2002ko uztailaren 18a • XXII. urtea



**t tipi-ttapa TBren
udako programak**

04

Urtero bezala Bestaz Besta saioan eta aurtten berrikuntza gisara, Joseba Olagaraik gidatuko duen Uda-giroan saioan oinarrituko da udako programazioa t tipi-ttapan.



**Boulder aretoa
zabalik Beran**

28

Eskalada maite duten 35 bazkidek moldatu dute Beran Boulder aretoa, udalak utzitako hiltegi zaharrean. Edonorentzat zabalik dela erran digu Loro Pikabeak.

03 Pedro Urrutia: Ardi ile eta larruarekin tratuan



KOLOK

menaje denda



Hondarribia kalea 4, IRUN
Tfnoa.: 943 61 56 22

- SUKALDE ETA MAHAIRAKO TRESNERIA
- OPARIAK



MUEBLES A METS

Iarunbat arratsaldetan
irekia
4000 m² erakusketa



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak



BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com

Sarrera BERAtik da Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA Tfnoa. 948 630 537 Fax. 948 631 443

DATUAK...

• **Pedro Urrutia, «Koskorro»** izenez ezagutua, urte aunitan baserriz baserri, herriz herri arropa saltzen eta ardi-larruarekin tratuan ibilitakoa da, mandoarekin, errepiderik apenas zegoen garaian.

• **Isabel Juanenearekin** ezkondua, sei seme-alaben atta da. Gaur egun Saldiasko alkate ere bada.

• **Berak uzten duenean, inguru honetan artilearekin eta larruarekin bertze inork ez duela segituko iruditzen zaio.**



Pedro URRUTIA Saldiasko ardi-larru eta ile saltzailea

EDURNE ZUBIETA

«Subentzioak kentzen dituztenean aunitz jautsiko dira ardiak»

Joseba OLAGARAI

Noiz eta nola hasi zinen baserriz baserri ibiltzen?

Nik 24 urte nituenean, lehenik asto batekin eta gero mandoarekin. 25 urte pasatu nituen horrela, eta gero, kotxea erosi nuen.

Hainbertze urtetan inguruko herri guztiak ezagutu izanen dituzu...

Denak, sail handia. Arantzara, Artikutzara, Oiartzunera... etxean nuen dendako arropak inguruko herri guzietan banatzen nituen. Bortzirietan ibili naiz guttien, baina bertze herrietan ordu eta egun asko pasatu ditut.

Arropaz gain, ardi larruak baserrietan erosi eta saltzen ere aritu zara urte aunitan...

Bai, duela 30 urte hasi nintzen horretan. Ikusten nuen besteak bide-nabarrean egiten zutela lan hori eta nik ere egin behar nuela pentsatu nuen. Kotxearen parrilan gainean jartzen ditut baserrietatik hartutako larruak, barrenera sartu gabe, horrela barrenean arropak sartzeko.

Zenbat larru dituzu etxean?

Momentu honetan igual 1.000 larrutik goiti izanen ditut. Hauek denak hi-

«Etxean ile-zako asko ditut eta 8.000-10.000 kilo biltzean saldu egiten ditut. Alfonbrak egiteko erabiltzen dira eta hemengo ardi zuri hau oso ona da»

labete batez bildu ditut. Almazenis-ta bati salduko dizkiot. Beti berdina izaten dut, behin hartu eta ez naue-lako eskapatzen uzten, nonbait ha-gitz gustoko izanen ditu nere larruak. Partikularrei, berriz, kuratuak saltzen dizkiet. Behin edo beste etorri izan zaizkit inauterietako behar zutelako eta gusto ederrean eman izan dizkiet.

Iñauteriez gain, zertarako erabiltzen dira larru horiek?

Ardi larru onarekin larruzko txaketak egiten dituzte eta bildotsaren larruarekin umeen arropa eta oinetakoak. Ahuntzaren larrua ere oinetakoak egiteko erabiltzen da. Momentuan bildots larrua da estimatuena.

Zenbatean saltzen dizkizute baserritarrek larruak?

Aritu naiz 60 duro pagatzen baina orain nonbait ardiei larrua handitu eta

mehatu egiten zaie eta pixkot prezioan estutzen hasi dira: orain 50 duro pagatzen ditut. Negozio arina da. **Ardi larruaz gain, ardi-ilearekin ere ibiltzen zara, ez?**

Bai, ilea ere baserritarrek saltzen ditate. Etxean ile-zako asko ditut eta 8.000 edo 10.000 kilo juntatzen ditudanean saldu egiten ditut. Hauek gehienbat alfonbrak egiteko erabiltzen dira eta hemengo ardi zuri hau oso ona da, Frantziako mugan izaten dena baino hobea. Ardi-ile hau erosten lehen baino guttiago ibiltzen naiz orain: herrian bertan, Eratsunen, Zubitan, beheko errekan Donezteberaino. Donamariatik honat, Berueten, Betelun... eta bertze aunitan ere ibiltzen naiz. Baina orain lehen baino guttiago izaten dut. Joan den urtean 60.000 kilo nituen eta aitzinekoetan gehiago bildu izan dut. Momentuz subentzioak mantentzen dituzten bitartean ardiak izanen dira baserrietan, baina itxuraz kendu egiten dituzte, eta orduan, aunitz bajatuko dira ardiak. Halere, niri ez zait asko inporta, ni ere bajatzen ari bainaz.



Joseba Olagarai etxalartarrak gidatzen ari da Uda-Giroan programa berria.

ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA

Uda sasoian murgilduta, programazio berria ikusgai da ttipi-ttapa telebistan uztaila hasieratik. Bi oinarri izanen ditu udako programazio honek. Urtero bezala, Bestaz Besta saioak inguru honetako herrietako besten berri ematen ari da. Aurten, berrikuntza modura datorren Uda-Giroan saio berriak, egunero gai baten inguruan aritzeko aukera emanen du, kirola, sukaldeak, gizarte arazoak, baratza, mendia, literatura, zinema... Beraz, udan ere ttipi-ttapa telebista duzu hurbileko informazioa.

UDA-GIROAN ETA BESTAZ BESTA SAIOETAN OINARRITUA

TTIPI-TTAPA TELEBISTAK programazio berria eskaintzen ari da udan

Herrietako besten arabera dabil udaro bezala ttipi-ttapa telebista. Donostia bezala San Pedroei eta Lesakako Sanferminei buruzko informazio zabala eskaini du Bestaz Besta saioak. Ondotik, Ituren, Elgorriaga, Bera, Arantza, Etxalar eta Igantziko bestak, Baztandarren Biltzarra eta bertze ospakizunak eskainiko ditu. Baina bes-

tek uzten dituzten tarteetan, udako programazio frexkoa eskainiko du telebistak, gaurkotasuna ahanzi gabe. Herriz Herri saioa eskainiko da egunero eta Uda Giroan saioaren barnean, egunero-egunero saio bereziaren bat izanen da, aspaldiko aurpegi ezagun eta ez hain ezagunen laguntzaz aurkeztuak.



HERRIZ HERRI

Noiz?

Egunero, 21:00etan

Errep: Egunero, 11:00etan,

13:00etan eta 15:30etan

Zer?

Herrietako ohitura, pertsonai eta ekitaldi bereziei buruzko erreportai frexkoak.

Enara ARROBARREN-Nagore TXOPERENA

Urte osoan lanean aritu dira Enara Arrobarren lesakarra, Nagore Txoperena igantzia-rra eta Joseba Olagarai etxalartarra eta ttipi-ttapa telebistan asteazkeneko asteazkeneko erreportai interesgarriak ekarri dituzte zuen etxeko pantailietara. Udan, lan

gehiago egiteko prest azaldu dira eta astero ez ezik, egunero-egunero erreportaiak plantatuko dute Herriz Herri saioan. Gure herrietako pertsonairik bitxiak, ohitura berexienak eta ekintzarik kuriosoenak beren frexkura eta umore punttuarekin emanak.



UDAKO PROGRAMAZIOA



SASOI BATEAN

Aitor AROTZENA



Noiz?

Astelehenero, 21:00etan

Errep: Asteartetan,

11:00etan, 13:00etan eta 15:30etan

Zer?

Garai bateko kirolari famatuak elkarriketak, orduko irudiekin lagunduak.

Denboraldi osoan, eskualdeko kirol talde eta kirolarien berri eman digu Aitor Arotzena lesakarrak, astelehenetako Jokoa Solas saioan. Uda garaian, begirada gibelera botako du Sasoi Batean saioan. Joan den

mendean famatuak izan ziren kirolariak, urtetan frontoietako kantxetan, futbol zelaietan... aritu ziren eskualdeko kirolari historikoak. Beraiekin izandako elkarriketak, beraien irudi ederrenekin bilduko ditugu. Gaur


egun kan-
txeta-

tik eta famatik urrundu baldin badira ere, sasoi batean sasoi batean egon ziren kirolariak izanen dituzue astelehenetan Sasoi Batean saioan.



ELTZE BEROA

Iñaki PIKABEA



Noiz?

Asteartero, 21:00etan

Errep: Asteazkenetan,

11:00etan, 13:00etan eta 15:30etan

Zer?

Sukaldaritza tarte honetan, egunero jaki goxoa bat prestatzeko pausu guziak ikusgai.

Zenbat ordu ematen ote ditugu jaten? Eta janarian pentsatzen? Neguan eltzari beroak, uda partean janari arin eta frexkoaagoak... Kontu hauek ederki daki Iñaki Pikabea Berako gazteak. Irizarrek bi urtez ika-

sia, Arzak, Alejandro, Hidalgo eta Akelarre jate-txe famatuak praktiak egin ditu, Argentinan, Estatu Batuetan eta Parisen ere izana da sukaldari lanetan. Etxetik hurbilago, Zalaia eta Zubiondo jatetxeetan ari-

tutakoa,
gaur
egun

Etxalarko Herriko Ostatuan ari da. Orain, asteartero jaki goxoak nola egin pausuz pausu erakutsiko die ttipi-ttapako ikusentzuleei. On egin!



DUDA-MUDA

Ainara MINDEGIA -Ainhoa ARBURUA

Noiz?

Asteazkenero, 21:00etan

Errep: Ortzegunetan,

11:00etan, 13:00etan eta 15:30etan

Zer?


Gaur egungo gizarteko hainbat arazo sakonei buruzko solasaldia.

Jende guzia kezkatzen duen arazoei buruz galde egingen dio Ainara Mindegia gure kazetari xaltzerak Ainhoa Arburua psikologo etxalartarrari: Drogak, sexualitatea, anorexia eta bulimia, menopausia, alkohola... Gizarte osoa ukitzen duten aferrak, jakitun batek esplikatuak. Eta zure zalantzei erantzuteko deitu 948 631 188ra edo idatzi: ttipi-ttapa@topagunea.com



BARATZE XOKOTIK

Karmele TOLOSA



Noiz?

Ortzegunero, 21:00etan

Errep: Ortziraletan,

11:00etan, 13:00etan eta 15:30etan

Zer?

Baratza ongi zaintzeko gomendioak, mendian bueltaxka nondik eman...

Abiatu, Baratze Xokotik abiatuko da Karmele Tolosa, baina etxeko baratza zaintzeko aholkuak emateaz gain, mendi ibilaldiak, urpeko irudiak, loreak polit-polit nola eduki... eta bertze hainbat kontu

ekarriko dizkigu bere saskian. Magazine honetan gisa guzietako irudiak, aholkuak, bidaia... topatuko dituzue, sorpresa kutxa baten antzera: zuhaitzak noiz kimatu, tipulak landatzeko tenorerik egokiena,


letxu-
gak
noiz

eta nola ongarritu, lore jakin bat kanpoan edo barrenean, eguzkipean edo itzalean eduki behar den... denetik ikasiko duzu saio honetan.



GOMENDIOAK

Castillo SUAREZ-Jabier ORNOZ



Noiz?

Ortiziraleroko, 21:00etan

Errep: Astelehenetan,


11:00etan, 13:00etan eta 15:30etan

Zer?

Liburu eta bideo gomendioak, itzalpean goxo-goxo irakurri eta ikusteko.

Uda garaian lanerako ezik bertze edozertarako gogoazartzen da. Bero sargoriko egun eguzkitsu horietan edo trumoiak eta tximistez hornitutako egun euritsu horietan denbora pasatzeko aukera on izaten ahal da liburu bat irakurtzea edo bideo bat ikus-

tea. Literaturaz aunitz daki Castillo Suarez Altsasuko idazleak, bera ere hainbat libururen egile baita. Jabier Ornoz lesakarrak, bideo-klubeko pelikula onenen berri emanen digu. Ongi aditu beraien gomendioak eta etxean ere ez zara aspertuko!



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemakal:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxel-torena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerrek, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Gurea aitortuz, aniztasuna errespetatuz

Euskal Herria errealitate anitza dela, begi bixtan da. Kultura eta hizkuntza aniztasuna kontinente zaharraren ezaugarri nagusia den gisa berean. Ekonomia irarri osatzen ari da Europa, baina Europako herritarrek badakigu Europako altxorarik preziatuena aniztasun kulturean dela. Izaeraren aferan ere, errealitate ezberdinak ageri dira: Gure zazpi probintzietan badira herritarrek frantses edo espainol sentitzen direnak eta zorionez bere izaera hori aitortzen zaie, naziotasuna eskubidea onartua eta babestua dutelarik. Bixtia bada ere, Euskal herritarroiek ez zaigu izaera hori inon aitortzen eta naziotasuna eskubide hori ukatu egiten digite.

Horregatik poz handia hartu nuen bai Udaltzaz Euskal Herriko naziotasuna aitortzeko bidea zabalduko zuela jakiterakoan, bai Herriko Etxean zinegotzi guztien babesarekin, EHNAren mozioa onartu genuenean. Honek, herritarroiek gure naziotasuna libreki aitortzeko aukera ematen baitigu. Horregatik euskal herritarrek sentitzen zaren guztiak uztailearen 20ean larunbatarekin eguerdiko 12etatik aitzina Berako Herriko Etxeko Batzar Aretan zuen naziotasuna. Aitortza egitera animatu nahi zaituztet.

Gure herriaren iza-

era aitortua izan dadin, lehenik gure buruarekin zintzo jokatu behar dugu, naturaltasunez garena aitortuz, jakinik aniztasunaren ortzadarra aberasteko kolore guztiak behar ditugula.

Berako alkatea

Josu Goia Etxeberria

Bai Euskal Herriari

Auñamendiak eta Bizkaiko itsasoa elkar besarkatzen duten eremuan, herri tiki bat dago, Europako hizkuntza zaharrenetarikoa bat biziarazten duena, bere kultura aberatsaren jabe, mendeetako historiaren lekuko, biztanleriaren ongizatea segurtatzeko gaitasun ekonomikoa duena, eta finean, nazio izateko osagarri guztiak dituen. Hau horrela, ez Euskal Herriari, ez euskal herritarroiek, ez zaigu izaera hori inon aitortzen, ez eta zor zaizkigun eskubideak errespetatzen. Errealitate hau abiapuntutzat harturik, herri ekimen bat martxan jarri dugu: Bai Euskal Herriari. Euskal Herriaren aitortzaren alde eta gure herriaren eta herritarren oinarritzeko eskubideen alde lanean ari dena.

Euskal Herria, herri gisa aitortua izatea nahi badugu lehenik eta behin guk gure buruari aitortu behar diogu garen hori. Horregatik Udaltzaz herritarrei gure naziotasuna libreki aitortzeko eskaintzen digun aukera gure herriaren izaera aldarrikatzeko eta gu-

re naziotasun eskubidea gozatzen hasteko urrats polita iruditzen zaigu. Berako Herriko Etxea eta Berako hautetsiak Udaltzazaren izenean, Euskal Herriko Naziotasuna Aitorrena (EHNA) tramitatzaren hasiko dira datorren uztailearen 20ean eguerdiko 12etan. Hau dela eta Berako Bai Euskal Herriari taldeak beratar guztiak bertara agertzera eta EHNA egitera animatu nahi zaituztegu.

Inori deus ere ez inposatu gabe, garena naturalki aitortuz, zor zaigun begirunea eskatuz eta bide praktikotik gozatuz. Beratarrok erran dezagun: Bai Euskal Herriari!

Berako Bai Euskal Herriari.

Buztizgo lepoko iruinariariz

Harridura haundiz irakurri genuen Ttipi-ttaparen ekainaren 6ko alean argitaratutako Sunbilako kronikan Buztizgo iruinariari egindako bidegabeberia. Artikulutxoaren izenburuan "menhir moderno" aipatzen bazen ere, jakin behar da Buztizgo Lepoko iruinaria benetazko aurrehistoriako megalitoa dela, Luis Millanek 1985eko urriaren 20an horrela identifikatu zuena eta Gorosti elkartearen buletinaren 5. alean ezagutzera eman zena (Gorosti, Sección de Prehistoria. 1988. Relación de monumentos megalíticos no catalogados. Nuevas

localizaciones. Gorosti 5. z. Iruñea, 16. orrialdea.) Zinez salatu beharrekoea da Buztizgo Lepoko gertakari tamalgaria, Sunbilako pertsonaje hauen ekin-tza deitoragarriak megalito bera kaltetzeaz gain, datu arkeologiko arront garrantzitsuak ezabatu baititu, betirako galduko direnak.

Ez dakigu ezjakintasunak eragindako triskantza ote den ala harropuzkeriaren ondorioz egindako ekin-tza, baina balentria gisa aurkeztu zitzaiguna lotsagarri bihurtu da. Azken finean, Buztizgo Lepoa Sunbilako "Gaztelu Plaza" bilakatu da. Lagun hauek guztion ondasun historikoaren aurkako eraso salatu behar den bezala, era berean udalak eta gobernuerantzunkizuna jarri behar da mahai gainean, aurrehistoriako ondare baliotsua zaindu eta ezagutarazteko ezer gutxi egiten ez baitute.

Gertaera tamalgariak gure megalitoak babesteko beharra piztu du, mendetan zehar jasotako ondarea, gure arbasoek utzitako lekukoa errespetatu eta zain ditzagun garaia delako, Buztizgo Lepoan gertatutakoaren antzekoa berriro gerta ez dadin.

Iñigo Txintxurreta (Irun)

Zuzenketa

Iban Isasi Nekazaritzako Ingeniaria da, eta Ingeniari Teknikoa azken aleko elkarriketan jarri bezala.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



ARGIA 02-06-30

«Herriaren izaera zuzen-zuzen lotua dago federekin. Herri bakoitzak berezko izaera du, berte herriek berea dute eta guk euskal izaera dugu. Euskaldunon izaera hori onartzea jendea onartzea da, jendea delako bertzerik gabe. Hori Biblian agertzen da, hori Jainkoak egina da eta Jainkoak egina baldin bada fededun batek onartu, defenditu eta aldarikatu behar du».

Pello APEZETXEA
Etxalarko erretorea
ARGIA 02-06-30

«Zizkuitz txaranga desagertu zenetik, inguru honetan bazen gure txarangaren gisako zerbaiten beharra. Guziok musika bandako partaideak gara, egunen batean aukera horretaz solastu eta orain egi bihurtu da. Lesakako Sanferminetan estreinatu gara, baina ez dugu herrian bakarrik jo nahi, deitzen gaituzten leku guzietan baizik».

Peio ETXEBESTE
Lesakako Txakain txarangako kidea
D. Noticias 02-07-09

• 11 GALDERA LABUR •


Anttonio MARIEZKURRENA *Elgorriagako zinegotzia*

Zinegotzi edo zurgin, zer nahiago?

Zurgin nahiago dut.

Bestak antolatu edo besta egin?

Besta egin dudik gabe. Besta antolatzea zaila izaten da, eta de-nean gustoa egitera zailago oraindik.

Asteburuetan juerga egin edo futbitoria jokatu?

Biek hagitx gustoko ditut baina juerga nahiago dut.

Herriko bestak edo Bordatxo?

Herriko bestak, ambiente ezberdina da.

Kubata edo kaña?

Kopa bat hartzeko kubata baino besta egiteko eta ongi aguantatzeko kaña.

Euskal musika edo Operación

triumfo?

Euskal musika.

Bestak gainean dituzula egunik hoberena?

Zikro jate eguna, herriko jendea giro politoan egoten da.

Balnearioa eta Ziber Kafea Elgorri. Etorkizuneko herria da?

Bueno pentsatzen dut balnearioa egiten badute baietz, baino ezta-ki noizko.

Herri bat bizitzeko?

Elgorri, hori dudik ez egin.

Bizio bat?

Uf... hainbertze dire. Beno kirola da biziorik haundiena.

Uda herrian edo kanpoan?

Egia erran kanpoan, herrian gelditzen banaiz leku batean edo bertzean lanean aritzen naiz.


FUNERARIA
ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404

☎ 900 704704



Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta kanponketa



BORTZIRI
UNSION ANAIK

sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxes: 948 637 266



☎ 948631076 • BERA

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industriala
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

ERRETIRATUAK

Aitatxi-amatxien Eguna ospatuko du Arkupeak elkarteak uztailaren 26an

Piriniota eta Lourdesera ere ateraldiak antolatu ditu

ttipi-ttapa

Aitatxi-amatxien nazioarteko Eguna ospatzeko egunpasa antolatu du Arkupeak elkarteak uztailaren 26an. Goizean goiz abiatuko dira autobusak herrietatik eta, eguraldiak laguntzen badu, Urbasa aldetik ibilaldia egingen dute. Lizarrara ailegatu eta bertako eliza batean Meza adituko dute. Ondotik, 14:00etan bazkaria izanen dute Benta Larrion jatetxean. Bazkaldu ondoren aitatxi-amatxi bakoitzari oparitxo bat emanen zaio. 16:30etatik 19:00etara dantzaldia izanen dute eta gero etxeruntz itzuliko dira.

Lizarraldeko ateraldia baino lehen, aste honar honetan Lourdesera bidaia antolatu du Arkupeak-ek. Larunbatean, uztailaren 22an, aterako dira bazkaldu ondoren. Arratsaldean, hotelera iritsi bezain pronto, logelak banatuko dituzte. 19:00etan afalduko du-



ARTXIBOKOA

Lizarraldera, Piriniotara eta Lourdesera aterako dira Arkupeak-eko kideak.

te eta, lasai ederrean, suzuriaren prozesiora joanen dira.

Igandean, Meza aditu ondotik, nahi duenak Viacrucis-a egin ahal izanen du. 13:00etan bazkaria izanen dute eta arratsaldean, erien prozesioa. Ondotik, hotelera joan eta segidan, etxera itzuliko dira.

Baina bi ateraldi hauekin ez dira akituko Arkupeak elkarteak uda

sasoi honetarako presatuak dituen bidaia. Uztailaren 29tik abuztuaren 2ra bortz eguneko bidaia egingen dute Aragoiko Piriniota eta Jacako Gran Hotelean bildurik egonen dira. Uztailaren 29an goizez aterako dira, logelak banatuko dira eta 14:00etan bazkalduko dute. Arratsaldean libre izanen dute. Uztailaren 30, 31 eta abuztuaren 1a pen-

tsio osoan igaroko dute hotelean. Goizetan eskurtsio gidatuak egingen dituzte inguruko mendietara. Egun batean Larumera igainen dira, telesilla eta trenetan, 2.000 metrotik goiti, toki zoragarria ikusateko. Egun guzietan autobusa izanen da eskurtsio hauek egiteko. Abuztuaren 2an, bazkaldu ondoren etxera abiatuko dira.

ERREPIDEAK

Berrizaun eta Bera arteko errepidearen proiektua onartu da

N-121-A errepidean, Berrizaun eta Bera arteko errepidea moldatzeko Udalez Gaindiko Eragina duen Proiektu Sektoriala onartu du Nafarroako Gobernuak. Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduak jende aitzinean paratu zuen aitzin-proiektua (TTIPI-TTAPA 321) eta ondorioz, zenbait aldaketa egingen dira. Matxain inguruan baserritik urrundu egingen da errepidea eta Nabasturengo zentrala eta auto tailerraren artean altuera handiagoan joanen da. Gisa honetara, gaur egungo errepidea azpitik joanen da, bi aldetatik errepide berrira sartu eta bi aldeetako belagiak komunikatu ahal izateko.

Bederatzi kilometroak bortz zatitan banatu dira eta hasierako aurrekontua 20,38 milioi eurokoa da, hau da, 3.391,81 milioi pezeta inguru.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneretik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziralean, 8etatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

- ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713
- Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 - 607 406781



BERA

Alkaiagako Santiago bestak ospatuko dira uztailaren 25ean

Bazkalondoan musika eta dantzarako aukera berezia izanen da

Asier GOGORTZA

Heldu den ortzeguan, uztailaren 25ean, ospatuko dute Alkaiagako auzotarrek Santiago eguna. Goizeko 11:00etan Meza Nagusia izanen da Alkaiagako zelaian. 14:00etan auzo bazkaria izanen dute. Bazkalondoan, jokuak izanen dituzte eta urtetik urtera arrakasta eta animazio gehiago izaten duen dantza lehiaketa. Lehiakideek dantzari konpletoak dira erakutsi beharko dute aurten ere, sueltotan, helduan eta bertze hainbat estilotan aritu beharko baitira. Ondotik, Bortzirietako bertso eskolakoek beraien saioa eskainiko dute. Gure Txokoako dantza taldeak ere bere emeraldia eskainiko du.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Duela kasik bi urte irabazi zuen Gorka Ibargoiien herritarrak baranda diseinurako egin zen lehiaketa. Orain, herriko karrikak eta zubiak apaintzen hasiak dira baranda horiekin, Matzada inguruko argazkian ageri den bezala.

Eta dantzari ofizialak ikusi ondotik, dantza egiteko gogo sartzan zaienez, izanen da au-

kera ederra. Lehenik, Isidoro Fagoaga Musika Eskolako pop-rock taldea ariko da doinurik

modernoenak hedatzen eta arrats partean Irats taldearekin dantzaldia izanen da.

FLASH

EHNA tramitatuko da uztailaren 20tik aitzinera

Berako herriko Etxea eta Berako hautetsiak Udalbiltzaren izenean, Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) tramitatzen hasiko dira larunbat honetan, uztailaren 20an, eguerdiko 12:00etan. Hau dela eta, Josu Goia alkateak eta Berako Bai Euskal Herriari taldeak dei berezia egin dute bertara agertzeko.

Ikastolan, Zia errekan eta Zalaingo frontoian lanak

Berako Udalak Zia erreka gainean zubia zabaltzeko lanak Olabarri eraikuntza enpresari eman dio, 53.554,21 euroren truke. Modu berean, Zalaingo parkearen eta frontoien lanak L&M Ingenierik enpresari eman dio, 51.307 euroren truke. Azkenik, Labiaga ikastolako lanak Mikel Urdanpilletak egingen ditu, 43.118,16 eurotan.

KIROLA

Euskal Herriko mendi bizikleta txapelketa irabazi du Garrok

Negu partean ziklo-kro-sean entrenatu eta bikain aritu ondotik, mendi bizikleta denboraldiari indarrez ekin dio Juan Carlos Garro BH taldean ari den txirrindulari

beratarrak. Sanfermin egunez Tolosan jokatu zen Euskal Herriko mendi bizikleta txapelketan bera izan zen irabazle elite mailan. Podiuma hiru nafarrek osatu zu-

ten, bere gibeletik Intersport taldeko Emanuel Itoiz iruñearra eta Joxe Mari Goia igantzizarra sartu baitziren. Larunbat honetan Pajaresen jokatu den Espainiako txapelketan parte hartuko du Juan Carlos Garrok.



ARTXIBOKOA
Espainiako txapelketan parte hartuko du igande honetan Juan Carlos Garrok



Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA



Altzate, 19 • 948630786 • BERA

LESAKA

Hainbat ekitaldi indartu egin dira aurtengo Sanferminetan

Urtetik urtera ugartzen ari da kartera ebasleen arazoa

Aitor AROTZENA

Batzuk bihotzeko min handiarekin erranen dute, berte batzuk atseginez, baina guttiago falta da 2003. urteko Sanferminetarako. Ortziraleta larunbateko jende oldearen ondotik, (ez-patadantzariak ehundaka gaupaseroren artean egin behar izan zituzten egun nagusiko harat-honata) herritarrok eta ingurukoek besta ederretaz gozatu ahal izan dugu, eguraldia sobera lagun izan ez badugu ere. Erraldoi eta buruhandiek gogotik lan egin behar izan dute aurtengoan, herriko Txakain txaranga gaztearekin batera auzoz auzo ibili baitira. Peñen eguneko danborradak ere azkeneko urteetan baino danborjole gehiago izan zituen, aitzinetik gosaltzeko deiak erantzun polita izan baitzuen. Haurrek eta ez-konduak beraien egunak izan zituzten, bestak akautzeko. Azken egun honetan, herri bazkariak, mariatxiek eta Txakaingo joan-etorriak giro berezia piztu zuten. Bestei aitzakiren bat paratzekotan, urtetik urtera ugartzen ari diren dira ebaskek.



ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

Ttikienek helduen ikasgaiak segitzen dituzte danborradan.

FLASH

Banartako Santio bestak

Azkeneko urteetako ohi-turari segituz, Nabaz eta Katazpegi auzotarrak biltzen dituen Banartako besta Linddurren-borda sagardotegiaren inguruan eginen da uz-tailaren 25ean, Santiago egunez. Eguerdi aldera txupinazoa botako da eta gero toka txapelketa jokatu da. Bazkaria Linddurren-borda sagardotegian bertan eginen da. Aitzinetik eta ondotik, auzoko bertsolariak eta trikitilariak ariko dira. Azken urteetan izan den giroari eusten badiote, bederen, afal orduan ere otordu bat baino gehiago eskaini beharko dute sagardotegian, egun-pasa polita egiteko pro-bexten baitute auzotarrak.

Pikabearen margo erakusketa

Juan Carlos Pikabea margolari lesakarraren lanak ikusgai izanen dira uz-tailaren 20tik irailaren 1era Otsango auzoko Irisarrin (Tomase-nekobordako erroton-daren ondoan).

Trikitixa txapelketa

Uztailaren 5ean jokatu zen Baztan-Malerreka-Bidasoaldeko 5. trikitixa txapelketan Nekane Etxandi eta Estitxu Elgorriaga lesakarrak gailendu ziren, zazpi bikoteren artean. Joan den urtean ere txapeldun izan zen herriko bikotea.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
☎ 948 637826

ANIA
janaridenda
Bittiria 41 • ☎ 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zabai
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIN
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ETXALAR

Joan de ekainaren 30ean inauguratu zen Kultur Etxea

Kontu korrontea ireki dute iazko bestetako manifestazioan salatutakoek

Joseba eta Nerea

Joan den ekainaren 30ean burutu zen Kultur Etxearen inaugurazio ofiziala. Aunitz urtez obra hauen esperoan egon ondotik, azkenean ireki zituen Herriko Kultur Etxeak bere ateak. Oraindik martxan daukan zerbitzu bakarra puntu teknologikoa da baina urtea aitzinera joan ahala liburutegia eta gainontzeko erabilerak abian paratzen joanen dira.

Inagurazio egunean, goiz osoan ibili zen jendea Kultur Etxean eta eguerdi partean udalak emandako hameketakoa dastatzeko parada izan zuten. Garazi Lujua zinegotziak aipatu zigunez, «*gure helburua herritar guzietan Kultur Etxea barrenez ezagutzeko da, ez haurrek bakarrik. Hasieran espero genuena baino jende gehiago bildu da eta martxan paratzen denean ere bertze hainbertze biltzea espero dugu*».



JOSEBA OLAGARAI

Herriko Ostatutik ekarritako hameketakoa gustora hartu zuten bildutakoek.

iazko bestetako kontzentrazioa

Etxalartarrok Guadua Zibilarekin hainbat arazo izan ohi ditugula denontzat jakina da eta horren adibide da iazko bestetan gertatutakoa. Azkeneko urtetan egin den bezala, iazko Amabirgin besten bezperan, abuztuak 14an, orduko Euskal Herritarrok-ek deituta, presoan eskubideen aldeko kontzentrazio ixila burutu zen

herriko plazan, printzipioz arazorik gabe eta normaltasun osoz. Baina handik egun batzuetara bederatz lagunei (8 etxalartar eta beratar 1) kontzentrazioan egoiteagatik denuntzia iritsi zitzaion etxera. Hori ikusiz, 9 lagun horiek elkartu eta abokatu baten laguntzaz administratiboki errekurritu zuten denuntzia. Denbora joan ahala, ezer lortzen ez zutela ikusiz eta isu-

na ordaintzeko epea akabatuz zihoala ikusitean, bakoitzak zeukan 300 €ko isuna ordaintzeko alternatiba bat bilatu dute epaitegitara joan antzinetik. Horrela, kontzentrazioan egon zirenak nahiz 9 denuntziatuak lagundu nahi dituztenak Rural Kutxan kontu korrante batean beraien aportazioa egiteko aukera dute. Hauda zenbakia: 3008 0086 26 1112204019.

FLASH

Dantza saioa heldu den ortzegunean

Urteroko gisan aurtengoan ere Irungo Eraiki dantza taldearen ekimenenez, Etxalarrera munduko leku desberdinetako dantza taldeak etorriko dira. Lerro hauek idazterakoan ez zen oraindik zehaztua zein talde etorriko ziren baina Eraiki dantza taldekoek erran zigutenez India edo Congotik talde bat etorriko omen da eta Bulgaria edo Ukrainatik bertze bat. Hauekin batera Etxalarko Andramari dantza taldeak ere bere saioa eskainiko du. Gusto duzuen guzietan, uztailaren 25eko mezaren ondotik munduko bertze lekutako dantzak ikusteko parada izanen duzue bertze urte batez.

Haurrendako puzgarriak igerilekuan

Uztailaren 28an Nafarroako Gobernuak "Arte y Cultura" programaren barruan, herriko igerilekuetan haurrendako puzgarriak izanen dira. Eguraldiak laguntzen badu behinik behin joan nahi duen edonorentzat zabalik izanen dira goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara.

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

BAR Botxo
OSTATUA
© 948630052 • Zalaín • BERA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hiritgintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

HERRIKO
ISTATU • JATETxea
Bittiria, 45 • 948 637 503
Plaza • NATARJA

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

IGANTZI

Eneko Ado beratarrak irabazi zuen mendi bizikleta jautsiera txapelketa

Bertzalde, Joxe Mari Goia hagitz ongi ibili zen Euskadiko txapelketan

Oskar TXOPERENA

Berara joan zen uztailaren 6an Igantzin jokatutako Mendi Jautsiera probaren txapela. Eneko Ado beratarrak egin zuen denborarik motzenez Fraindik herrira bitarteko ibilbidea, 3 minutu eta 19 segundutan. Bigarren Mikel Bergara urnietarra sailkatu zen segundu eskasaren diferentziarekin eta hirugarren Egoitz Ado, Enekoren anaia. Ez zuen Xabier Tellexea igantziarrak zorte handirik izan, probaren bi zatitan hondatu baitzaitzaion bizikleta. Guzira 37 lagunek eman zuten izena proban aritzeko, eta, gehienek erranetan, hagitz polita zen antolatzaileek prestatutako ibilbidea. Zerbait zatitan izugarri ikusgarria zela erran behar da, Fraingo bidea airez zeharkatu behar izan zuten lekuan, errate baterako. Kanpotik etorritako epaileek zorionak eman zizkieten Biltokioei antolaketa-erengatik.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Hilabetea joan da eskolako haur, irakasle eta gurasoek Ilunberri eta Xabierre egin zuten ibilalditik. Eguraldi zoragarriaz gozatzeko aukera izan zuten, orain pisinetan bainatzeko hemen daukaguna baino anitzez hobea.

Joxe Mari Goia

Mendi bizikleta alde batera utzi gabe Joxe Mari Goia Galarretakoa Tolosan jokatuko Euskadiko Txapelketan hagitz ongi ibili zela erranen dugu. Juan Carlos Garro beratarrak irabazitako proban podiutera iragotzea lortu zuen, hirugarren ailegatu baitzen helmugara, bigarren gelditutako Emanuel Itoitz iruñearraren ondotik. Hirugarren pos-


tuak uztailaren 20an Pajaresen, Leonen, korrituko den Espainiako txapelketan parte hartzeko eskubidea ematen dio. Ea proba ona ateratzen zaion egun horretan Joxe Mariri.

Fardo altxaketa

Sanferminetan izan ziren Iruñean herri kirolak Nafarroako zenbait txapelketa, fardo altxatzeara horien artean. Nafarroa mailan

igantziarrak dira kirol honetan aritzen diren ia guztiak. Ondorioz, herri-tarren arteko lehiak ikusi ahal zuten Iruñean fardo altxaketan. Iñaki Beureau izan zen hobereena 19 altxaldirekin eta, jakina, Nafarroako txapelduna. Ondotik sailkatu ziren Xabi Sein, Miguel Angel Etxarte, Carlos Sein eta Joseba Urbistondo. Elutseta auzoan entrenatzeak bere onurak dit, nonbait.

Herria ezagutuz



Arbitza

Adin batetik goitikoek gogoratuko duten bezala, Barazarrearen gaineko aldean, Arbitzeko bordako bi-dearen hasieran zegoen Arbitza etxea. Hagitz etxe zaharra zen, XVI. mendekoa guttienez, Parrokiko artxiboan 1.600 urte inguruko erreferentzi ugari agertzen baitira. Horietako batzutan «Pedro de Eguiamendia», «Tomas de Eliçatea» eta bertze zenbaiten izen etxeari lotuta agertzen badira ere, «Irisarri»-tarren leinuak erakusten du bere nagusitasuna, Merkateneya, Irigoiena, Adamenea, Erramunea, Allezira eta bertze etxe anitzetan bezalaxe. XVIII. mendean Irisarritarrek izandako ezkontza-erengatik Sampaul abizena sartzen da Arbitzan eta azkenik XIX. mendearen ondarraldia, gauegurena arte, Urtxegitarren eskutara pasatu zen. 1866ko katastro orrian ikusten ahal den bezala, etxe handia zen Arbitza: Juan Aniceto Sampaul: «casa de Arbitza: (...) ocho metros de frente y diez y ocho metros de fondo», baina ez zuen horrek bere desagertaketa galarazi, XX. mendearen hasieran.

TEL K
K MISET K
ISE
K MISKE
N AI UZUNK U U, NEU I ET ISEINU ERIN
Ezt r 2 h T l- F x 3 15 21

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

GAZTANDEGIA
Etxeko
Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

PINTURAS LEGUIA S.L.
Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
Eztegara 26, 2.C - BERA

ARANTZA

Bestatan herriko dantzak dantzatzeko larunbateko bilerara joateko deia egin da

Abuztuaren 17an egingen da Arantza Rock 2002

Nerea ALTZURI

Arantzako dantzak dakizkiten herritar guziei deialdia egin zaie larunbateko bilerara agertzeko.

Hilabete baten buuruan lehertuko dire herriko bestak. Urte hasieratik, herritar talde bat bestak prestatzen ari da. Abuztuaren 14tik 18ra izanen diren besta egunen egitaraua lotua da, eta egia erran, egunez egun, jaiak ekitaldiz besteak dira aurtengo Ama-birjinetan: patata -tortil txapelketa, punta-puntako pilota partidak eta herri kirol saioak, arantza rock 2002... eta herriko dantzari eta dantzazaleen saioa abuztuaren 15ean, egun nagusian. Aipaturiko hon-dar ekitaldi honi buruz bilera izanen da larunbat honetan Zahar Txo-kon mezaren ondotik, ilunabarreko zortzi terdiak aldera. Helburua, Arantzako Dantza orain-go eta lehengo dantzari-ek elkarrekin dantza-tzea da. Noski, herritar



NEREA ALTZURI

Argazkian ikusten duzuen kuadrilak uzataileko lehenbiziko hamabortzaldia herrian pasatu du. Guzira 30 ikasle eta 3 irakasle izan dira. Bizkaitarrak.

dantzari berri guzientzat aukera zabalik dago. Gainerakoan, astearte, ortzegun eta larunbatean herriko gaztetxoak jo ta ke ari dira dantzak entsaiatzen. Itsaso Be-reau, Aitziber Almandoz eta Gurutze Pikabea erakusle dituzte.

Gutun baten bitartez nahiz atal honen bitar-

tez, deialdia egina da-go dantzei buruzko bilerarako. 10 inguru dantzari dago aurtengo bes-ta batzordeko ordezkari-ek eginiko zerrendetan. Guziek juntatuz ge-ro, ze edertasuna as-paldiko eta berezko dan-tzen dantza saioan!

Dantzarako txirrinta eta gogua adieraziz,

animzte!! Bilkurara ager-tzerik ez baduzu, deitu: 948 634137 (Aitziber) edo 948 634 133 (Itsaso).

Arantza Rock 2002

Arantza Rock jaial-diaren bertze edizio bat izanen da aurtan ere besten karietara. Da-

goeneko kontzertua iragartzeko kamisetak ikusi ez bada, erosi eta soinean paratu izanen dituzue. Gazte asanblan-daren laguntzarekin, presioen aldeko ekime-na izanen da aurtengoa ere. Abuztuaren 17an larunbatean, KURAIA, BERRI TXARRAK, SE-LEKTHA KOLEKTIBOA eta HARITZ SOUND SYSTEM taldeek emana-ldi erraldoia eskaini-ko dute herriko frontoian.

Euskara ikasteko barnetegiak

Bertze uda batez, barnetegiaren erreldoa abiatu dute arantzako aterpean. Zazpigarren urtea da Aterpeak barnetegiak antolatzen di-tuela. Irailera bitarte, barnetegietan lagun berriak egiteko modua beti ba-da. Aintzineko urteeta-ko esperientziak onak izan dira eta lagun au-nitzek bisita egiten du-te urteko edozein teno-reetan. Ongi pasatu du-tenaren seinale!!



**ALBERGEA
JATETXEA**
© 948 634179
ARANTZA



J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta
barnizatzen dittut
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIKURUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...

☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

NARBARTE - DONEZTEBE

Maite eta Esther Iriarte ahizpek irabazi dute pala goma txapelketa

Belate elkartearen laguntzarekin antolatu da lehen aldiz

ttipi-ttapa

Belate elkartearen laguntzaz lehen aldiz antolatutako emakumezkoen pala goma txapelketa jokatu da. Kategoriaz ezberdinetan parte hartzeko aukera eman zuten antolatzaileek, zazpi urtetatik hasi eta helduak bitarte. Hasieran 12 neskek eman zuten izena, baina azkenean hamar bakarrik aritu dira txapelketan: Saioa Iraola eta Naiara Astibia (Leitzakoak), Leire Olagarai eta Amaia Agirre (Etxalarkoak), Maite Iriarte eta Esther Iriarte (Narbartekoak), Arantxa Juanaberria eta Elixabet Jaukikoa (Narbartekoak) eta lera Agirre eta Saioa Aristorena (Leitza eta Etxarri Aranazkoa). Finaleko protagonistak Narbarteko bi bikoteak izan ziren eta azkeneak Maite eta Esther Iriarte ahizpak izan ziren txapel-dun, Arantxa Juanaberria eta Elixabet Jaukikoari irabazita. Etxalar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Pala txapelketan parte hartu duten emakume batzuk eta antolatzaileak, sariak banatu ondotik.

ko Leire Olagarai eta Amaia Agirre izan ziren hirugarren.

Partiduak Oronozko eta Legasako frontoietan jokatu dira, baina hurrengo txapelketarako antolatzaileek pentsatzen ari dira bertze herrietan ere aritzea, modu horretan akaso neska eta emakume gehiago animatuko direlako-

an. Ea lerro hauek irakurri eta hurrengo txapelketan parte hartzera gehiago animatzen diren, eta poliki-poliki kirol hau indartzen den emakumeen artean.

Xanti Uterga gaztea erremontelari profesional

Lehendik bortz erre-

montelari profesional baziren Donezteben eta hemendik aitzinera seigarrena ere izanen dute: Sanfermin egunean egin zuen debuta Euskalen Xanti Uterga, 17 urteko aurrelari gazteak. Lehendabiziko partidua galdu egin zuen, baina oraindik ere irabazteko astia izanen dute noski, bere adinarekin.

PERTSONAIA

Juan Luis ODRIOZOLA

Azken aldiz egin du banderaren dantza

Juan Luis Odriozola doneztebarrak 16 urte eman ditu San Pedro eguneko banderaren dantza egiten, baina aurtengoa izan da azkena. Juan Luisek, bere aita Federico ordezkatu zuen. 1962an egin zuen lehen aldiz Federico, beraz Odriozolatarrek 40 urte eman dituzte Banderaren dantzarekin. Juan Luisek adierazi zuenez, «*ni Lesakan bizi naiz orain eta, urruti ez badago ere, beti ardua bat izaten da. Aita eta nere artean kunplitu dugula iruditzen zait*». Urteotako lana eskertzeko oroigarria jaso zuen alkaterearen eskutik. Urtariletik aitzin Juan Luisek erakutsiko die dantza Juan Telletxea, Jose Irigoien eta Xabier Bañares gazteei, beraz dantzak segida izanen du.

616 513 497

Pititi

ESKABAZIOAK

(C/Amelia)

32010 DONEZTEBE (NAFARRA)



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Alberto
RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
© 948 630 763

SUNBILLA

Kirola eta poteoa uztartuko dira uztailaren 27ko bizi-pote egunean

Mikel eta Igor Agesta lehengusuak bikain Extreme Bardenas proban

ttipi-ttapa

Larunbat honetan zortzi, uztailaren 27an, Bizi Pote eginen da bertze behin. Ibilbidea Ariztigain kanpinatik hasiko da 16:00etan eta herriko ostatu guzietan barrera, etapa zailekin osatutako itzulie eginen dute. Urtero bezala, hainbat arau jarri dira, bertzeak bertze, bizikletan ibili behar duten guziek kamiseta eraman beharko dutela edo parte hartzaileak 18 urtetik goitikoak izan behar dutela. Izen ematerako prezioan, «avitallamiento»an hartu beharrekoa hartu dute kontuan: beltz, gorri edo xuri korrientea hartzen dutenek 26 euro, Errioxako ardoa, zurtoak... 32 euro. Antolatzaileek adierazi dutenez, euria eginez gero, partehartzaileak kanpotik nahiz barnetik bustiko dira. Hori bai, norbaitek *positibo* emanen balu, kontraanalisia egiteko eskubidea izanen du.

Agestatarrak Extreme Bardenas proban

Mikel eta Igor Agesta lehengusuak marka handia egin dute Extreme Bardenas mendi bizikleta proban. 102 kilometroko ibilbide gogorra osatzeko 1.500 kilolari baina gehiago aurkeztu ziren. Mikel Agesta bederatzigarren izan zen eta Igor hamabos-



ARGAZKIA: KARMELE TOLOSA

Hainbat hilabetez lanean aritu ondotik, hilabete hondarrean irekiko omen dute Larrakaitzeko tunela eta errepide zati berria.

garrena. Oraindik gazteak izanagatik, hemen inguruko mendi bizikleta probetan urteak di-

tuzte parte hartzen Mikel eta Igor Agestak. Bardeetan ikusitakoa ikusita, herriko nahiz in-

guruko bertze probaren bat abudo irabazteko moduan daudela erakutsi zuten.

ZUBIETA

Euskaldun berriak ailegatu dira

Leire ORTUOSTE

Aurreko aldizkarian aipatu bezala etorri zien euskaltegikoak Olaseneko albergera, arrunt ongi pasatu zuten herriko jendearekin eta herriko giro politarekin.

Amama Luisa

Amama Luisa musika taldeak aste hondarra egin zuen herrian. Ostiraletik igandera entsaiatzera etorri ziren, baina ostiralean berean plazan jo zuten, larunbatean Errandonea ostatuan kontzertua eman zuten eta igandean joan ziren.

Bardeak

Bortz zubietar joan ziren Extreme Bardenas mendi bizikleta proban parte hartzera.

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



BELARRA

OSTATUA
JATETXEA

Amezitia karrika
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

GOIZUETA

Aurtengo udal aurrekontuak eta iazko kontuak onartuak

1.328.708 euroko diru sarrera-irteerak izanen ditu Udalak

Esteban AROTZENA

Maiatzaren 15erako egin eta uztailaren 3an onarmen ofiziala jaso duen 1.328.708 €ko aurrekontua izanen du udalak aurtengo. Dirutza honen 2/3 inbertsionetan (saneamenduak, eta abar) erabiliko da, 838.000 € hain zuzen. Dirusarrera handienak, berriz, mendien esplotazioetik etorriko da, 870.000 € jasotzea aurre-

rikusten baita alde horretatik. Udalaren iazko kontuak ere hil honen batzarrean onartu ziren

Mendiak zaintzen

Herriaren bizi iraupenerako mendiak duen garrantziaz konturatuz, gero eta hobeki zaintzeko neurriak hartu ditu udalak. Batzuk aipatzearren esan, matorrasa egin berria den



ARGAZKIA: ESTEBAN AROTZENA

Ane Zinkunegik zuzentzen duen Judo eskolak erakustaldi ikusgarri batekin eman zion bukaera ikasturteari. Judo erakustiaz gain, 30 emakumeri aerobik-a ematen die Anek urte osoan.

Udi, Tartatxulo eta Mالدamalkor parajeak garbitu egingen direla hurrengo neguko landaketak errezagoak eta hobeak izan daitezten. Andres Eskudero "Berdabio"ren enpresari eman zaio lan hau. Aipagarria da gainera, udako hilabete hauetarako beste bi mutil kontratatu dituela herriak

mendi garbiketa lane-tarako.

Gaia berarekin segituz esan beharra dago, maiatzean enkantera edo subastara ateratako Urrixtabaletako-egutera eta Okillegiko-maikoako egur loteak, udalak berak geldituko dituela "aurkeztutako eskaintza lizitazio prezioaren azpitik" delako.

Lehenengo mendiko 1.799 pinu insignisak (2.559 m³) 35.320 €tan baloratu zuen udalak eta jasotako eskaintza ia 11.000 € gutxiagokoa izan zen. Okillegiko-maikoan berriz, 757 pinu daude (1.296 m³) eta 72.438 euro balio dute udalaren ustez. Sei mila euro gutxiagokoa izan zen eskaintza.

ARESO

Denda eta taberna gisara larunbatean irekiko da Sastinea

Herriko bi igerilarik Euskal Herriko txapelketan parte hartuko dute

Juana Mari SAIZAR

Uztailaren 20an irekiko dute berriz ere Sastinea, goitik behera berrikuntza lanak egin ondoren. Herriko jendearentzako inagurazioa egun horretan egitea pentsatzen dute. Denda, taberna jangelare-

kin eta kafetegiko zerbitzuak emango dituzte hemendik aurrera Sastinean.

Bi igerilari Euskal Herriko txapelketan

Maitane Gereño eta Usue Goikoetxea herri-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

San Pedro jaiak ospatu dira berriro ekainaren azken asteburuan herriko gazteak etxetik etxera.

ko gazte igerilariak Santurtzin parte hartuko dute Udako Euskal Herriko txapelketan uztaila-

ren 13 eta 14an, urte osoan egindako probetan gutxieneko denborak lortu eta gero.

Hau idazterakoan parte hartu gabe daudenez hurrengo alean xehetasun gehiago.

ELGORRIAGA

Santiago bestak uztailaren 24tik 28ra

Egun nagusian tortila txapelketa

Asteazkena Uztailak 24

20:00etan suziria eta zopak, txaranga eta txis-tulariekin. **00:00etatik aitzin** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Ortzirala Uztailak 26

10:00etan argi soinuak. **11:00etan** Haurjokoak. **17:00etan** partxis txapelketa. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Ortzeguna Uztailak 25 Santiago eguna

10:00etan argi soinuak. **11:00etan** Meza, Doneztebeko Mendi Abesbatzak kantatuko du. **12:30etan** pilota partiduak eta hamaiketakoak. **20.00etan** Tortila txapelketa eta berendua. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTO-rekin.

Larunbata Uztailak 27

10:00etan argi soinuak. **11:30etan** toka txapelketa. **14:00etan** zikiro jatea, MODESTO akordeolariak alaitua.

Igandea Uztailak 28

10:00etan argi soinuak. **12:00etan** futbito partiduak. **17:00etan** mus txapelketa eta berendua. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia AGERRALDE-rekin eta «Pobre de mi». Bestetan egunero BETI-ALAI txarangak jo-



ARGAZKIA: MAXUXEK UTZIA

Musika eta dantza izanen da aurten ere Elgorriagako Santiagoetan, duela urte batzuetako argazkian ageri den bezalaxe. Beheitian, zikiro-jate ondoko bertsosai Lizaso eta Eguzkitze. Aurtengoan, ez da bertsolariarik izanen, baina bai Modesto akordeolaria.

ko du.



ETXEBERRIA ZURGINDEGIA

Ongi pasa bestetan!

© 948 45 03 10 • ELGORRIAGA




HILARION ZIBER OSTATUA

- Internet
- Jokuak
- Posta elektronikoa
- Skanerra
- Inprimagailua...
- Kafetegia
- Bokatak
- Platerak
- Pintxoak...

e_martin_ibarra@terra.es • ELGORRIAGA • 948451730

ITUREN



Herriko bestak uztailaren 19tik 23ra

Ostirala 19

21:00etan Txupinazoa.
Gero kalejira trikitilari eta
txistulariekin.
00:30etatik 4:00ak arte
dantzaldia GAUBELA
taldearekin.

Larunbata 20

10:00etan kalejira triki-
tilari eta txistulariekin.
12:00etan Futbito par-
tidua, herriko helduak
gazteen aurka.
18:00etan Trikitixa ema-
naldia, Josune eta Ain-

hoa Irastorza eta Min-
degia senideak, beraien
ikasleekin.

20:00etatik 22:00ak arte
eta **00:30tik 4:00ak**
arte dantzaldiak GAU-
BELA taldearekin.

Igandea 21

10:00etan Kalejira triki-
tilari eta txistulariekin.

11:00etan Meza Nagu-
sia.

12:00etan pilota parti-
duak, Txarutako pilota-
ri gazteekin:

Xabi Bereau-Xabier Eli-
zalde; Iñaki Larralde-

Luis Ibarra.

18:00etan: HERRI KI-
ROLAK:

Aizkolariak: MINDE-
GIA-LARRETxea

Harrijasotzaileak: PE-
RURENA aita-semea.

20:00etatik 22:00ak arte
eta **00:30tik 4:00ak**
arte dantzaldiak TRIKI-
DANTZ taldearekin.

Astlehena 22

Haurren Eguna

10:00etan kalejira triki-
tilari eta txistulariekin.

11:00etan jende hel-
duentzako Plater Tira-
keta.

11:00etatik 14:00ak arte
eta **17:00etatik**
19:00ak arte Haur Jo-
kuak: Txirrista, Karts, Pi-
loten Etxea. Arratsalde-
an, Txokolate jatea izan-
go dute, herriko plazan.

17:00etan Mus txapel-
keta.
20:00etatik 22:00ak arte
eta **00:30tik 4:00ak**
arte dantzaldiak TRIKI-
DANTZ taldearekin.

AETXUEA
LARRETxea

ITUREN
Besta onak pasatu!
Telefonoa: 948 450 410

Teilatuko zurrak
Etxe zaharren
moldaketa
Etxe berriak
Eskailerak
Sukalde-mobleak
☎ 948 451906 • 676 847281
AURTIZ

INDEGIA
ZURGINDEGIA



Ondoko orrialdean, mutikoen eskolako argazkia, 1970. hamarkada haseran. Ea ezagutzen dituzuen!

Orrialde honetako argazkia, 80. hamarkada hasierako Trinitate egun batean, Mendaurren ateratakoa.

Asteartea 23

10:00etan Kalejira trikitilari eta txistulariekin.

14:30etan urtero beze-

la Herri bazkaria. Ondoren, kalejira. Arratsaldean eta Gauez dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. Gero, «Po-

bre de mi» eta besten bukaera.

MALERREKA

Ezkurrako hiru baserriarako bideak konponduko dira

Lanak Hirurteko Planean sartu du Nafarroako Gobernuak

ttipi-ttapa

Ezkurrako Iruinea, Peskonea eta Ibiaborda baserriarako bideak moldatzeko proiektua Hirurteko Azpiegitura Planean sartu ditu Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio Departamenduak. Lanen aurrekontua 83.240 eurokoa da eta Nafarroako Gobernuak 64.345 euro ordainduko ditu. 800 eta 305 metro luzeko bi zati ormigoiztatuko dira, hiru metroko zabalera emanez. Malda haundiko lekuetan kuneta egingen da eta ura pasatzeko tuboak ere egingen dira.

Zubietako errota

Jesus Laguna, Na-

farroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamenduko kontseilariak Zubietako errota-Uraren Ekomuseoa duen hitzarmena berritu zuen uztailearen 3an. Zubietako errota iaz sinatu zuen hitzarmena eta orain bertze urte baterako berritu da. Hitzarmen honen bitartez, Nafarroako Gobernuak urtero 9.015 euro (milioi terdi peza) ematen ditu Zubietako Museoa mantentzeko. Zubietako bezalaxe, Gobernuaren menpekak ez diren bertze hamar museo daude Nafarroan, baina honelako hitzarmena sinatua dute, beraien ekitaldiak bultzatzeko.

Kanposantua handitzeko 86.000 euroko aurrekontua

Ehuneko 35a Nafarroako Gobernuak ordainduko du

ttipi-ttapa

Rafael Gurrea, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio kontseilariak Hirurteko Azpiegitura Planean sartu du Iturengo kanposantua handitzeko lanak. Proiektu honek 86.262 euroko aurre-

kontua du eta %35a pasaxea, 30.487 euro, Nafarroako Gobernuak ordainduko du. 592 metro koadro handiago egingen da hilerria eta barnean urbanizazio lanak egingen dira, lurperatzeko guneak zehaztuz.



Iturengo Udalak

Besta zoriontsuak

opa dizkizue

Iturendar

eta bisitari guztioi

ARANO

Santiago jaiak uztailaren
24tik 28ra ospatuko dira

Egun nagusian bertso saio bikaina izanen da

Asteazkena 24

12:00etan Udaletxeko balkoitik, Alkate Jaunak jaiari hasiera emango dien suziria botako du.
21:00etan Herri meza. Herriko tabernetan "Arano ez stop" festa.

Osteguna 25

Santiago eguna

10:00etan Goizsoinua trikitilariekin.
11:00etan Herri meza.
12:30etan Pelota partida Arano eta Goizuetako afizionatuen artean.
18:00etan Harrijasotzailea SARALEGI, Aizkolaria MINDEGIA eta ARROSPIDE eta Iparaldeko jokoak.
19:30etan Bertsolariak; sustrai Colina, Andoni Egaña, Jokin Sorozabal, Haritz Zerain, gaitartzailea Xabier Legarreta.
20:30etan TAPIA eta LETURIA taldearekin.

Ostirala 26
Jubilatuen
eguna

10:00etan Goiz soinu
11:00etan Herri meza. Meza ondoan hamaketako jubilatuentzat San Roke elkartearen **12:30etan** Afizionatuen pilota partidua.
14:00etan Jubilatuen bazkaria Gure Ametsa ostatuan, ondoren bertsolariak Imanol Lazkano eta José Agirre. Arratsaldean zehar trikitixa.
22:30etan Mus txapel-



ARTXIBOKOA

Duela urte batzuk txistularien kalejiran parte hartu zutenak eta ondoan, aurtengo jaietako kartela.

keta San Roque elkartean.

Larunbata 27
Umeen eguna

12:00etan Pelota partida Arano eta Goizuetako infantilen artean.
16:00etan Pelota txapelketaren finalak.
19:00etan Gorritiren Show-a ondoren txokolatada. **22:00etan** Oirlasko jatea ondoren gupasa ETXABE ANAIEKIN. Herriko tabernetan "Arano ez stop" festa.

Igandea 28

10:00etan Meza nagusia. **18:00etan** TXAN MAGOA herriko plazan.



Benta Berri jatetxea

Larunbatetan itxita
 Sukaldaritza tradizionala

© 948 514018 • Urumea • ARANO

GURE AMETSA
jatetxea

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

© 948 514000 • ARANO

INGURUMENA

Bidasoako
amoarraina
lau urtez
aztertze
373.644 euro

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak 373.644 euro (60,16 milioi pezeta) erabiliko ditu lau urtez Bidasoako izokinen portaera aztertze. 2002. urtean 58.675 euro gastatuko dira, 2003an 122.043 euro, 2004an 126.925 euro eta 2005ean 66.001 euro.

Nafarroako erreketako amorrainen egoera jakiteko 1992. urtetik kontrolak eta jarraipenak egiten dira, populazioen bilakaera eta kudeaketa eta aprobetxamendu neurri ezberdinei ematen dieten erantzuna jakiteko. Segimendua neguan hasten da, erruteak kontrolatuz. Negu akabailan eta udaberrian sortzeen eta amorrain kumeen jarraipena egiten da. Arrantza denboraldian galdetegiak egiten zaizkie arrantzaleei, emaitzen berri jakiteko. Azkenik, udan, populazioen inbentarioa egiten da.

Azken urteetan Bidasoan egindako azterketen arabera, ere karen erdi aldean amorrain gutti dago, joan den urtean baino %17 guttiago. Gainera, zenbat eta itsas alderago, kopuru horrek beheiti egiten du nabarmen. Izan ere, kontrolak egin diren azken hamar urteetan ez da berreskuratze edo aldaketa seinalerik somatu.

LEITZA

Abel Barriolak Nafarroako lau terdiko txapelketa ere irabazi du

Erakusketak eginen dira Maxurrenearen kultur erabilera bultzatzeko

Mikel ILLARREGI

Aurreko alean titulu beretsu erabiltzen genuen eskuz banakako txapelketa irabazi ondoren. Oraingo honetan Nafarroako lau terdiko txapela lortu du.

Behin baino gehiago aipatu izan bada ere, "Leitze kirolari ta kirolzale askoren herrie da". hau guztia jakina da, eta egile eta zaleen artean gaurko honetan aurrekoaz gain, beste bat aipatu nahi dugu; Angel Mari Juantorena (Eratsun). Azkeneko hila-bete honetan bi proba berezitan parte hartu baitu. Bata "Hiru handien ibilaldia" eta bigarren "Aitzkorriko maratona". Lehenbizikoan, Aitzgorri, Anboto eta Gorbeia mendiak igotzeaz gain 100 kilometroko ibilbidea bete behar zuten guztira. Hermeretzi ordu inguru behar izan zituen. Bigarrenean, Euskalerrian antolatzen den lehen aldia izanik, Zegamatik hasi, Aitzkorriara igo eta buelta bera, baina hau guztia lasterka. Honetan, zazpi ordu eta zertxobait gehiago. Ez da makala!

Kiroldegiaren inagurazioa

Joan den astelehenean, herriko udal kiroldegia zabaldu zuten, inagurazio ospakizuna aurreko hilean egin ondoren. Honek dituen zerbitzuak honako hauek



ARGAZKIA: PABLO FEO

Asteburu honetan bukatuko da Okile ezinduen tailerrak Maxurrenean egin duen erakusketa.

dira; pilotalekua (amazabal pilotalekua hain zuzen), kiroldegia pilotaleku txikia, Squasha, sauna, muskulazio gela, muskulazioaren banan-banako jarraipena eta kirol ikastaroak. ikastaroak aipatu ditugunez, urriaren 7tik aurrera ondoren aipatzen ditugun hauek burutzeko asmo dute, psikomotrizitatea (3tik 5 urte bitarte), ae-

robic, step, matentze gimnasia, gimnasia lasaia (3. adinekoentzat), yoga, prestaketa fisikoa eta taekwondo. Instalazioen erabilera eta fun-

tzionamenduaren arau orokorrak azalduz informazio orria kaleratu dute, honetaz gain kuotak eta instalazioen alokairu prezioak azaltzen dituzte.

Gureak ere kanpora

Euskara zerbitzuak antolatutako 5. eta 6. mailako 22 ikasle joan dira Gipuzkoako Alkiza edo Bizkaiko Ajandiz-a. hamaika eta hamabi urteko gazte hauek, uztailaren 11tik 17ra edo 29tik abuztuaren 4a bitarte joan dira beste herrietako adinkideekin aisialdiaz aprobeztatu nahian.

FLASH

Saharai buruz gehiago

Nafarroako Saharar Ordezkaritzak bidalita Leitzako udalak azken batarrean laguntzarako mozioa onartu zuen. Dakizuenez, laster uztilaren 30ean hain zuzen, Nazio Batuen Segurtasun kontseilua bilduko da Sahararen etorkizunaz erabakitzeko. honetan 1991. urtean onartutako erreferenduna (baina oraindik bete gabea), integrazio plana, lur eremuaren zatiketa edo ONUren erretirada aztertuko dute. Guzti honen jabe izanik, azkeneko 27 urte hauetan konfliktua izan den egoera honi amaiera eman nahirik, gizarteari dela egiteko konpromezua har dezan eskatzen diote udalari.

Kultur-erabilera Maxurrenean

Uztailaren 22tik abuztuak 4ra, «Festa giroan» Aurrerako materiala ikusgai. Asteartetik larunbatera 19:00etatik 20:00etara. Igandetan 12:00etatik 13:30etara.

Notario-lratxe

Hauek ere jai hartzen dute (san ferminetan edo,...) eta hile honetan ez dira udaletxera etorriko. Abuztu arte itxoin behar...

Gazte festa alternatiboa

Herriko gazte taldeak, "gazte festa alternatiboa" antolatu dute hila-ren 20ean, arratsaldeko 7etatik aurrera.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
© 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

KAPRITXO
Arropa eta opari denda
© 649 450249 • LEITZA

BAZTAN

Benito Menni ospitalean ez dute lan hitzarmenerako akordiorik lortu

Elizondoko zentroan 107 langile ari dira

Rakel GOÑI

Elizondoko Benito Menni psikogeriatría ospitaleko lan-hitzarmenerako akordiorik ez da lortu eta mobilizazioetan hasi dira langileak. 107 langile ari dira zentru honetan eta ELAK du gehiengo sindikala. Sindikatu honek prentsaurrekoa eskaini zuen uztailearen 1ean Iruñean. Bertan, zuzendaritzarekin dauden ezadostasunak bi puntutan laburbildu zituzten: datozen bi urtetarako soldata igoera eta lan-ordu murrizketa. Hasierako eskari hauek gauden urteko azaroan aurkeztu ziren, baina bilera batzuekin ondotik, oraindik ez da akordiorik lortu. Langileek, soldatean Kontsumorako Prezioaren Indizearen igoerari (IPC) %1,5a gehitzea eskatzen dute eta 16 lan-orduko murrizketa. ELAKo Ana Ariztegik adierazi zuenez, «datozen bi urtetarako hitzarmena da eta lan ordu murrizketa eta sol-



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

160 erretiratu eta eri zaintzen dituzte Benito Menni ospitalean.

data igoera urte bakoitzera dira». Enpresak, aldiz, aurtan 8 orduko lan murrizketa eta datorren urterako 6 urtekoa eskaintzen du. Urte bakoitzean, IPCaren igoerari %0,2a gehitzea ere eskaintzen du. Akordiorik lortu ez dutenez, hilabetea daramate langileek konzentrazioak

egiten ospitale atarian, astelehen, asteazken eta ortziraletan, 12:45etatik 13:15etara. Orain, egunero egiteko intentzioa dute. Ana Ariztegiaren erranetan, «lan orduetan geldialdiak egiteaz solastu dugu, baina ez daga gauzatu. Uda garaia ailegatu da eta lankide batzuk oporrak

hartu dituztenez, irailean segituko dugu mobilizazioekin, akordiorik ez bada gauzatu».

Benito Menni ospitala Nafarroako Gobernuak Ongizate Departamentuarekin hitzartuta da eta langileek sail honetako arduradunen batekin biltzea ere eskatu dute.

FLASH

Oronoz-Mugairiko ur hornidura

Azpiroz y Saralegi enpresak egingen ditu Oronoz-Mugairiko ur hornidura lanak 115.665 euroren truke (19 milioi pezeta pasatuxeak). Lehiaketara aurkeztu zen enpresa bakarra izan zen eta berari emateko Udaleko Gobernu Batzordeak. Bigarren deialdian eman dira lan hauek, lehendabizikora ez baitzen enpresarik aurkeztu. Lehenbiziko horretan, haserako aurrekontua 105.310 eurokoa zen. Bigarrenean %10 igo zen haserako aurrekontua (115.841 euro), beraz, Azpiroz-Saralegiren eskaintza 176 euro merkeago da.

Arizkungo eskolako

moldaketa lanak Gartzaiango Uncar igeltseritzaren enpresak egingen ditu 76.762,45 euroren truke (BEZ barne). Berea izan zen aurkeztutako proposamen bakarra.

Luberriak

Ugartenea eta Olatxarreko inguruetan luberriak atera eta hobetzeko proiektua onartu du Balleko Etxeak, 23.025,45 euroko aurrekontuarekin.

ORDOKI LIKOREAK
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

ERRETEGIA
Parrilan egindako haragi eta arrainak

SALEZONES UDANA, S. L.

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

BAZTAN

Baztandarren Biltzarra igandean ospatuko da

Bortzehun dantzari eta musikari gonbidatuak daude

Rakel GOÑI

Igandean ospatuko da Baztandarren Biltzarra eguna baina aste hondar guzian izanen dira ekitaldiak Elizondon. Larunbatean, uztailearen 20an, 10:00etan bertako produktuen azoka izanen da Merkaturkozealaian. 19:00etan Incansables txarangak karrikak alaituko ditu. 21:00etan herriko dantzariak ariko dira Ziga Plazan. Gauerditik aitzin dantzaldia izanen da Laiotz taldearekin.

Baina urtero bezala, igandean izanen dira besta eta ospakizun handienak. Goizez, hasmenta emateko, 10:00etan laxoa partidua jokatuko da pilotalekuan eta artisauen erakusketaren irekiera egingen da. Beti bezala, eguerdian orga apainduen desfilea abiatuko da: 500 dantzari eta hainbat musikari gonbidatuak daude eta horiekin batera, hamabortz herrietako orgak ikusi nahiko lituzkete antolatzaileek. 14:00etan Mutildantzak dantzatuko dira plazan. 14:30etan herri bazkaria egingen da Merkaturkozealaian eta 1.600 bat lagunendako lekua izanen da.

Bazkalondoko jaialdian, urtero bezalatsu, gauza aunitz izanen da ikusteko eta aditzeko: kantariak, bertsolariak, Unai Iturriagaren ikusizun berezia, Muxikok, Larraindantza eta



ARGAZKIA: FOTO MENA

Lekarozko orga, duela hogeita hainbertze urteko Baztandarren Biltzarran.

akitzeke, Trikitake taldearen emanaldia. Foruen Plazara bueltatuz, bes-

ta akitzeke 20:00etan dantzaldia izanen da Laiotz taldearekin.

ZUGARRAMURDI

58 baserrien aferan arrazoia eman dio Nafarroako Gobernuak Baztango Udalari

Zugarramurditik kanpo, Baztango eremuan segituko dute ofizialki

Margari eta Koro

Aspaldiko urtetan sofritzen ari duten arazo berarekin segitu beharko dute herriko baserritar frankok, ez baita lortu haien etxe eta eremuak Zugarramurdira itzultzea. Kaltetuak diren baserritar hauek Zugarramurdiko Udalaren eskutan utzia zuten aldaketa hau egiteko eskaera, baina Udalak egin zuen eskaera ukatu du Gobernuak bi arrazoiengatik: Baztango udala ados ez delako, eta aurkeztu diren arrazoinak ez omen direlako nahikoak aldaketa hori egiteko. Erabaki hau hartu zutenek hilabete bat bizi beharko lukete baserri hauetako batean, aldaketa egiteko aipatzen diren arrazoinak nahikoak diren edo ez ongi jakiteko. Despatxo batean goxo-goxo jarrita ederki hartzen dira bertzeen bizitzarako eragina haundia iza-

ten ahal dituzten erabakiak.

Ostatu berria

Aspaldiko partez beheitiko karrikan ostatu berri bat edeki da. Karrika huntan ezagutu zen azkenekoa Barrantxean zegoen eta duela 50 bat urte etsi zen. Orain Narkonean arras bitxia den bertze ostatu bat edeki dute (ez omen da ostatua, txiringittoa baizik). Izena "Bigarren ametsa" emana du eta lezeetako bidean dago. Gustura eta trankil egoteko toki arras aproposa.

Gaupasako langileen afaria

Gaupasako egunean lan egin zuten 115 lagunek uztailearen 20ean izanen dute beren saria "Armua" jate txean egingen den afaria eta dantzaldiakin. Ongi pasa eta indarrak hartu heldu den urterako.

Gierresetena
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Gira
Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA

Partake
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa



SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



SENPERE

Pierre Hirigoien saratar erakaslea omendu dute Arretxeako ikasle ohiek

Bide berria eginen da Gantxiki kiroldegi inguruan

Franck DOLOSOR

Pierre Hirigoien saratar erakasle eta Arretxeako zuzendari ohia-ri omenaldi berezia prestatu zioten kolegioko lan- kide eta ikasle ohiek be- re azken lan egunean. 30 urtez Senperealde-ko haurrak hezten la- nean aritu den eskola emailari agurra dan- tatzatu zioten Zirikolatze-ko bi dantzarik, Sébas- tien Zamora txistularia- ren laguntzarekin. Erre- tretarat gan den egu- nean biziki hunkitua agertu zen Pierre Hiri- goien. Ikasle ohien ain- tzinean argi utzi zuen bi- ziki atxikia zela Senpe- reko kolegiolari eta hor ezagutu dituen jende gu- zieri. Bere ikasle ohi gu- ziek lana eta bizi ona izan dezaten desiratzen duela argiki erran zuen saratarrak. Arretxeako jantegian erearoren 25an bildu ziren era- kasle eta ikasle guziek arratsalde goxoa iragan zuten aspaldiko histo- riak gogoratuz. Magali

Zubillaga aldudar gaz- teak hartuko du Hiri- goienek utzi duen lan- postua.

Oinezkoendako bide berria

Herriko kontseiluak deliberaturik bide berri bat eraikiko da oinez ibi- linahi dutenentzat Arre- txe ikastegia, Gantxi- ki kiroldegia, hilerriak eta karrikaren artean. Bortz metrako zabalera izan- nen du haurren segur- tasuna haunditu nahi duen bidexka berri hu- nek. Herriko etxeak lu- rrak trukatu ditu orain arteko jabearekin, Do- kelar familiarekin. Bide berri huni esker eskole- tako haurrek ez dute gehiago karrika nagusi hertsitik pasatu behar- ko kiroldegiat gatego.

Margo erakusketa

Didier Pattedoie ain- tzirako margolariaren obrak ikusten ahal dira Elkartetxean agorrilaren 10a arte. Erakusketa

eder honetan bilduko den diruaren erdia so- zial zerbitzuen alde emana izanen da.

INRA erakundeak proiektu berria

Bere lehen mende laurdena proiektu be- rriekin ospatu berri du



INRA erakundeak. Arrai- nen bizia ikertzeaz axo- latzen den zentro hunek 600 metra karratu berri eraikiko ditu ondoko ur- teetan laborategi berriak instalatzeko gisan. IN- RAK 25 urte bete zituen

egunean Richard Vibert horko lehen zuzendaria omendua izan zen 1977an harek atxeman baitzuen toki egokiena arrain-laborategiak egi- teko lbarrun eta Urguri artean.



Zorionak 75 urte betezen duteneri, adin ederra elgarrekin ospatu zuten ere- aroaren 23an.

STUDIO DE LA NIVELLE

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

Okindegian Jatetxean

Uxo

Okidegian

- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

Jatetxean

- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean erre. Goxo-goxoa!

SARA

Pottokaren eguna uztailaren 27an egingen da seigarren urtez

Orion 3 egun pasa zituzten Olhain ikastolako haurrek.

Aña Mari eta Fred

Uztailaren 27an, seigarren aldiko Pottokaren egunaz ospatuko da herrian. Euskal Herri guzitik eta kanpotik etorritako hainbat pottoka egonen dira ikusgai goizeko 9etatik goiti errebotean.

Goizeko lehiaketak ordu bat terdiak arte irau-nen du. Ondotik biak al-dera zikiro jatea izanen da, honen prezioa 19 € da. Beti bezala musikaz eta kantuz alaitua izanen da.

Arratsaldeko 4etatik goiti pottoken trabesiak ikusten ahalko dira, hauek ere pottoken gainean ibiliz gozatzen izango dute.

Aintzineko urteetan bezala, denborak laguntzen baldin badu errebotea berriz jendez



ARTXIBOKOA

Erearo hondarrean Gipuzkoako Orion 3 egunez ibili ondotik, Olhain ikastolako haurrek agurrak eman zizkieten Ainhoa Zelaia eskola emaileari. Azkene-ko 2 urtetan herriko ikastolan lan egin ondoren bertze toki batera joatekoa da heldu den ikasturtean. Esker beroenak guraso eta haurren partetik.

gainezka ikusiko da. nekin batera, egun ede- dute herriko hainbat la-
Kanpotik etorriko dire- rra pasatzeko aukera borariek.

FLASH

Zazpiak Bat taldearen udako ospakizuna

Uztailaren 20an, Zazpiak bat dantza elkarteak bere udako ospakizun nagusia antolatuko du. Errebotean, dantza ikuskizuna, pilota barti-da eskainiko dituzte. On-dotik afaria izanen da.

Igandean azoka plazan

Uztailaren 21ean, igandearekin turismo bule-goaren eskutik azoka izanen da egun osoan plazan. Herriar eta uda-tiar frango hurbilduko di-ra seguraski gure es-kualdeko mozkinak erosteko.

Kermeza uztailaren 28an

Uztailaren 28an, Kermeza izanen da anima-zio andana batekin pi-lota partidak, dantzak, jokoak. Beti bezala, eguerdi eta arratsean nahi duenak apairu on bat egiteko eskaintza ere badu.

Xoko Txapelketa

Seigarren urtez Pleka trinketeak antolatu xo-ko txapelketaren finalak heldu den uztailaren 27an iraganen dira. Le-hen neurketa goizeko 9etan hasiko da eta on-dotik eguerdi aldean bazkaria zerbitzatua izanen da trinketeko jan-gelan. Aipatzekoa da denetan 5 mailetan ba-natu 120 presunek par-te hartu dutela txapel-kean. Goresmenak gu-zier eta bertzaldi arte !

KIROLA

Sarako Izarra errugbi taldeak 30. urtemuga ospatu zuen

Joan den ekainaren 16an Sara-ko Izarra errugbi taldeak bere 30. urtemuga ospatu du gaitzeko arra-kasta ukan duen besta handi ba-tekin. Egun batzu berantago, el-

kartearen Biltzar Nagusia iragan da. Bilkuran hartu erabaki ga-rantzitsuen artean, azpimarratu behar da Martin Goienetxe orain arteko lehendakariak bere kar-gua utzi duela. Hemendik aitzina, Ramuntxo Basurco jokalaria ohiak izanen du taldearen ardu-ra. Bertzalde, jokalaria jadanik lanean hasiak dira Ahurtiko Je-

an-Luc Mondory entrenatzaile berriaren aginduetara. Jokalari berri frango agertu dira taldean eta guziak gogoz hasi dira en-trenatzen. Horretaz gain, Sara-ko Izzarrak Saratar guziak gomi-tatzen ditu abuztuaren 3an pla-zan ospatuko den erromeriarat, elkarteak animazio ainitz pres-tatu baiditu egun hortarako.

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

BURKAITZEA
ostatu
erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

AZKAIN

Azkain eta Lesakaren arteko Anaitasuna ofiziala bilakatu da

Xoko Ona ostatua ireki zuten uztailaren 6an

Ihintza, Angela eta Eneko

Jean-Louis Laduche eta Jose Luis Etxegarai, Azkain eta Lesakako Auzapezak, ekainaren 29an bildu ziren bi herrien arteko Anaitasunaren adierazpena ofizialki izenpetzeko Lesakako Herriko Etxean.

Testoaren arabera, bi Herriko Etxeek «*batasun eta anaitasun erlazioak mantentzea erabakitzen dute, bi herrien aurrerapena, garapena eta ongizatea lortzeko, elkarbizitza bilatzen duten bitartean [...] herrien garapena lortzeko elkarlaguntzea, bakean eta garapenean sortzen diren elkarren arteko harremanak indartuz, eta europar nortasunaren sorkuntza lagunduz*».

Ekintzetan «*kultura, gizartea, ekonomia, edo bi herrientzat interesa izanen duten beste edozoin gai*» ukituko dituzten arloetan eramanak izanen dira. «*Kultur inguru berdinak bizkortzen duten iharduerak bermatuko dituzte*» eta



Azkaindarrak Lesakako plazan.

«*bi udaletxeek gizarte-arekin ikustekorik duten erlazioak bultzatuko dituzte, horiekin zerikusirik duen informazioa elkarri bidaliz*».

Izenpetze ofizialaren biharamunean egin da lehen ekintza. Ekainaren 30an igandearekin, Lesakara gomitatuak izan ziren elkarte eta pertsona ofizialak. Jaun Auzapeza, bere axuen-

ta Larrañaga Anderea, Azkaingo klika, Martin-txoko kantariak, eta Azkaingo margolariak bildu ziren bazkaltzeko, autobus bat antolatua zen talde guziarentzat. Lesakatik hautetsi bat etorria zen ongi etorria egiteko. Ondoko urteetan harreman horiek azkartzeko borondatea agertu da bazkariaren ondotik, herritarren ar-

teko loturak sakontzeko gehiago. Elkarte baten sortzeko ideia azaldu da ere. Lesakako jendea errezebitua izanen da Azkaingo bestetan.

Xoko Ona ostatua ideki du Nicole Barrendegik

Lehen Denena deitzen zen jantegia jabez aldatu da. Peio Bordak

Errubian zuzendari berriak eta jokolari gehiago

Joan den hilabetearen errubi taldeko bulegoa bozkatua izan zen. Orai arte Kiki Hiribarraren zuzendaria zen. Aurten bere karguaren uzteko asmoa adierazi zuen eta hemendik aintzina bi zuzendari ariko dira lanean eskuz esku: Gilles Salla eta Ramuntxo Pinaki. Idazkaria eta diruzaina ez dira aldatu: Xarli Daguerre eta Mixel Garat.

Jokolarietan, 7 sartu dira taldean. Haietarik 6 Azkaindarrak dira eta jadanik arituak ziren taldean: Ugutz Laduche, Philippe Viquendi, Franck Goyenaga, Jakes Azarete, Ramuntxo Iratzoki, Laurent Mihura, eta David Girault (ziburutarra). Iragan den sasoinan jokolari eskasa sendituz zen, aurtengoa 40 mutiko baino gehiagorekin hasiko dute urtea.

tokia utzi dio Nicole Barrendegui Azkaindarrari. Uztailaren 6an egin zuen estreinaldia. Egun guziz idekia izanen da udan, eguerditan eta arratsetan bazkariak emanen ditu.

ZOANSA

SEAT AUDI VW SALMENTA

MARKA GUZIEK KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA (Sarrera Beratik)

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza

Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA

Ibardingo Lepoa

☎ 948 631209

ONASKA

ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza

Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE

☎ 948 45 20 88



EZKONTZAK

Pedro Maria Mikeo Zugarramurdi eta **Izaskun Sansiñena Olaetxea**, Iturengoak, maiatzaren 28an.

Poli Irazoki Manterola eta **Alicia Olai-zola Zaldainena**, Sunbilla eta Urdazubi-koa, ekainaren 29an.

Joao Carlos Cardoso de Raposo Pe-reira eta **Maria del Carmen Gallardo Itu-rriza**, Portugal eta Kubakoa, ekainaren 3an.

Tomas Urrutia Lizarreta eta **Aintzane Mariezkurrena Fernandez** Lekaroz eta Beintza-Labaiengoa, ekainaren 22an.

Fernando Valero eta **Cantal Leizago-yen**, Azkaingoak, ekainaren 22an.

Eneko Berasaluce eta **Sylvia Gabrion**, Azkaingoak, ekainaren 29an.

Ignacio Iturraste Alduntzin eta **Maria Luisa Navacuez Zamora**, Tolosa eta Tu-terakoa, ekainaren 22an.

Juan Jose Lizarraga eta **Francisca Za-baleta Zestau**, Ordizia eta Goizuetakoa, uztailaren 6an.

Angel Arregi Urteaga eta **Natalia Bayo Martin**, Elizondo eta Iruñekoa, ekainaren 6an.



SORTZEAK

Ander Mujika Klaber, Aranokoa, ekai-naren 13an.

Jon Ordoki Matxikote, Lesakakoa, ekai-naren 22an.

Irati Iriarte Altzugarai, Lesakakoa, ekai-naren 24an.

Jose Arriada Larralde, Lesakakoa, ekai-naren 25ean.

Aritz Otxoteko Dominguez, Irungoa, ekainaren 28an.

Carlos Rodrigo Morales Ortiz, Berakoa, ekainaren 21ean.

Janire Urdanpilleta Zabala, Goizuetakoa, uztailaren 7an.

Aitor Rekalde Lazaro, Elizondokoa, ekai-naren 25ean.

Leire Rekalde Lazaro, Elizondokoa, ekai-naren 25ean.

Ana Quevedo Ziaurriz, Elizondokoa, ekainaren 26an.

Jokin Beica Pagazaurtundua, Erratzu-koa, uztailaren 7an.



HERIOTZAK

Urbana Etxepeteleku Pikabea Donez-tebekoa, ekainaren 1ean, 88 urte

Francisca Mariezkurrena Baleztena, Eratsun, ekainaren 30ean, 93 urte

Michel Yves Raga Azkaindarra, ekaina-ren 19an, 47 urte

Eugène-Jean Louis Paris Azkaindarra, ekainaren 22an, 86 urte

Vicenta Zabaleta Olaskoaga Leitza, uz-tailaren 2an, 65 urte.

Bartolo Mendiburu Zubieta, Zugarra-murdikoa, uztailaren 7an, 60 urte.



*Azken egoitzara
eraman dugu
Katalintxoeneko
Marguerithe
LERETE.
Utzi ditueni
doluminak
hemendik.*



Manuela MUTUBERRIA MAITIKORENA

Iturenen hil zen
2002ko ekainaren 29an,
83 urte zituela.

*Udazkeneko usoen antzera joan zara-eta
gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizitzen garen artean ez zaitugu atzenduko.
Orain gaud egin kontsolaturik bihotzean dugun pena
Jaungoikoaren altzoan har ezazu atsedena.*

Senide, ilobak
eta familiak



Teodora LIZARDI ALTAMIRA

Beran hil zen
2002ko Ekainaren 8an,
79 urte zituela

Egun gogor hauetan gure ondoan
izan zareten eta gure saminarekin bat
egin duzuen guziei, mila esker.

Semeak, ilobak eta familikoak

*Esquisaroi
jatetxea*
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

DATUAK...

• Ekainaren 14an inauguratu zen Berako Boulder aretoa. Inguru honetan, gisako areto bakarra Oiartzunen dago eta Nafarroan hurbilen dagoena Iruñean dago.

• Eskaladan aritzen direnendako entrenatzeko eta kirol honetan hasi nahi dutenendako leku egokia eskaintzea dira Boulder aretoko bazkideen helburuak.

• 35 bazkide ditu Boulder Aretokak. Lehengo matadero zaharra utzi zien Berako Udalak eta lagun hauek moldatu eta 700 presa inguru erosi dituzte. Loro Pikabea mendizalea da kideetako bat.



AITOR AROTZENA

Loro PIKABEA *Berako Boulder Aretoko kidea*

«Eskalada kirol arrunta dela ikustea nahi dugu, ez arrisku itxura duen kirol berezia»

Aitor AROTZENA

Eskalada gogoko duten lagun batzuk Boulder aretoa egiteko asmoa agertu zuten duela urtebete. Berako Herriko Etxeak hiltegi zaharra utzi eta azken zortzi-bederatzi hilabetetan hura moldatzen aritu dira buru-belarri 35 bazkideak. Rokodromo baten eta boulder areto baten arteko ezberdintasunak galdetzerakoan, zera erantzun digu Loro Pikabeak: «Boulderrak erran nahi du sokarik gabe ibiltzen ahal zarela eskalatzen, ez duzu inoren laguntzarik behar». Aretoa irekitzeko bi helburu zituzten, «alde batetik bada eskalatzen dabilen jendea eta horientzat neguan entrenatzeko leku bat behar genuen, eta bertzetik, jende berria hastea eskalatzen. Horretarako hurbiltasuna eman behar zaio jendeari eta Bera erdi-erdian dagoen areto honekin lortu dugu jendea errax eratzeko modu bat».

Adin guzietako jendeari eskalatzen aritzeko aukera eman nahi diete. Deialdia egin diete ikastetxeei,

Jendeak probatzea eta gustatzen bazaie segitzea nahi dugu. Engantxatzen duen kirola da, hagitx abudo progresatzen duzula ikusten duzulako.

soin hezkuntza orduetan aretora hurbiltzeko. «Irakasleak izanak dira eta gustatu zaie. Haurrak ttikitatik eskalada ezagutzea eta kirol arrunta bihurtzea gustatuko litzaiguke, ez arriskutsua ematen duen kirol berezi bat».

«MENDIA ETA BOULDERRAK EZ DUTE ZERIKUSIRIK, BAINA LOTUAK DAUDE»

Inguru honetan, mendizaletasuna aski hedatua dago, baina oraindik eskaladaren mundua ezezagun xamarra da. Loro Pikabea bera Kilimanjaro, Gasherbrum edo Shisha Pangmara joandako espedizioetako kidea da, eta mendia eta eskalada lotuak daukela uste du. «Boulderrak berez ez

du mendiarekin zerikusirik. Halere, hemen barnean egiten dugun eskalada, gero naturan egiten ahal da. Jendeak biak lotzen ditu, hagitx lotuak daudelako. Batez ere mendi garaietan eskaladaren oinarriak ezagutu behar dituzu, soka eta pioleta erabiltzeko... Horrek ez du erran nahi, boulderrean aritzen dena Everest-era igoko denik, baina nolabait eskalatzaileen seaska izaten ahal da». Bazkideek gauzatutako proiektua baldin bada ere, bazkide ez direnei ere astean pare bat egunez ateak zabaltu nahi dizkiete. «Jendeak probatzea eta gustatzen bazaie segitzea nahi dugu. Engantxatzen duen kirola da, hagitx abudo progresatzen delako». Boulderran aritzeko zirkuitoak izaten dira, errexenetik hasita zailenera arte. Heldulekuak zenbakituak daude eta erakusle batek markatzen du, eskuak eta oinak non paratu eta hortik nora mugitu. Dena den, barkarka ere aritzen ahal da, norberak jartzen baitu nahi duen zailtasuna.

PILOTA

Baztanek irabazi du aurten ere Belateren Herriarteko txapelketa

Final nagusian Leitzari sei partiduetatik lau irabazi zizkion

Aitor AROTZENA

Joan den urtean egin zuen bezalaxe, Baztanek irabazi du aurten ere Belatek antolatutako Nafarroako Herriarteko txapelketa nagusia. Ekainaren 30ean jokatu ziren finalak Zizur Nagusian eta baztandarrek lana gogotik egin behar izan zuten Leitzari gailentzeko. Leitzarrek lehendabiziko bigarainak eskuratu zituzten jubeniletan eta benjaminetan. Gazte mailan jokatu zen lehen partida, Oinatz Bengoetxea Zizurretik Elgetarra joan beharra baitzen, lau terdiko txapelketaren finala jokatzera. Ibai eta Oinatz Bengoetxea lehengusuek 22 eta 2 irabazi zieten Unai eta Santi Arraztoari. Benjaminean, Astibia eta Jaunarenak 18-11 irabazi zieten Garisoain eta Jauregiri. Gisa honetara, leitzarrek 2-0 aurretik eta tantu alde politarekin hasi ziren finalean.



ARGAZKIA: BELATEK UTZIA

Partida ikusgarriak eskaini zituzten Leitzari eta Baztango pilotariek.

an. Baina hurrengo hiru partidetan baztandarrek nagusitu ziren: Olo eta Arretxeak 18-13 irabazi zieten Alduntzin eta Sagastibeltzari kimuetan, ordubeteko partidaren ondotik; Goñi eta Otxandorenak 18 eta 2 irabazi zieten haurretan Alustiza eta Belokiri, eta kadetetan, Urtasun eta

Iraolak 22-13 irabazi zieten Jaca eta Beteluri. Honela, nagusien azken partidaren 19 tantu aski zuten baztandarrek txapelak berriz ere janzteko. Baina, Buldain eta Iparragirre leitzarrek 15-10 aurretik jarri ziren, ustegabekoa emateko puntuan. Azkenean, Alzugarai eta Eskuderok

hemezortzina berdindu ondotik, partidari buelta eman eta 22-21 irabazi zuten, txapela Baztanera ekarri.

MALERREKA TXAPELDUN BIGARREN MAILAN

Bigarren mailan Malerreka suertatu zen txapeladun, Beteluri 2-1 irabazita.

FLASH

Doneztebeko VIII. paleta goma txapelketa

Etxegoien eta Zapiainen irabazi zuten Erreka elkarteak zortzigarren urtez antolatutako paleta-goma txapelketa, ekainaren 30eko finalean Apezetxea eta Ganboari 30 eta 25 irabazi ondotik. Gisa horretara, gipuzkoarrek txapelak, trofeoak eta 240 euroko saria jaso zuten. Doneztebarrek trofeoak eta 120 euro jaso zituzten. Hirugarren posturako lehian Txoperena-Txoperenak 30 eta 24 irabazi zieten Ibarra eta Berhori. Hirugarren izan zirenek trofeoak eta 60 euro jaso zituzten eta laugarrenek trofeoak.

Oinatz Bengoetxea

Elgetako lau terdiko txapelketa irabazi zuen leitzarrek ekainaren 30ean. Finalean 22 eta 15 irabazi zion Agestari. Aranztarrek finalerdia galdu zuen Altunaren kontra, baina hau erizogela eta azken partidaren aritu zen. Dena den, Belateko Herriarteko txapelketa goiz berean jokatzetik zetorren Oinatzek nahiko erraz lortu zuen garaipena.

Iñaki Txarandaka

quad gidari beratarraren taldea garaile suertatu zen ekaineko azken aste hondarrean Tarragan egindako Iraupeneko 6 Orduetan. 65 talderen artean Txarandaka Off Road taldea gailendu zen, estatuko garrantzitsuen izateaz gain, Europako egutegian sartua dagoen proba honetan. 3 kilometroko zirkuitoari 184 itzuli eman zizkion Txarandakaren taldeak.

HERRI KIROLAK

Eskualdeko kirolariak ongi ibili dira Iparraldeko Joku txapelketan

Nafarroako Herri Kirol Federazioak bigarren aldiz antolatutako Iparraldeko Joku txapelketan bikain aritu dira eskualdeko kirolariak. Koxkor biltzen hiru saioak irabazi zituen Fernando Etxegarai berrak. Jaime Etxegarai

hirugarren izan zen azken saioan eta Nafarroako txapelketarako txartela eskuratu du berak ere. Ingude altxatzen Josetxo Urrutia leizarra eta Xabi Sein igantziarra aritu dira. Azken saioan altxaldi bat gehiago egin zuen lei-

